


Aretxagazeta



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
**Eleaniztasunaren
aldeko mozioa /08**

IKASTAROA
**20 lagun Capoeira
ikastaroan /09**

LEINTZ GATZAGA
**Xabier Sarasua
710**



EGUZZKIGRAFEK 25 URTE

**HIRU INPRIMATEGI TXIKI ELKARTU
ETA EGUZZKIGRAF SORTU ZUTEN**

ELKARRIZKETA: XABIER SARASUA/4 • TXINA: OIER ETXEBERRIA BERTAN DAGO/7

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 2
ITURRALDE. Belorrieta 1..... 943 08 11 43

DOMEKA, 3
ITURRALDE. Belorrieta 1..... 943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basobro 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituta 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 79 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola 943 71 21 18
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Delak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaingoa 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdiaik 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

BELODROMORA JOATEKO AUTOBUSAK
Batasunak ekimen politiko berria aurkeztuko du domekan, 17:00etan, Donostian. Ekitaldia Belodromoan izango da, eta Aretxabaletatik joateko autobusak antolatuta dituzte. 15:30ean aterako da autobusa, Azbetik. Izenematea, Urbaltz eta Arlutzen egin daiteke.

GAZTE TEKNIKARIA KONTRATATZEKO DEIALDIA
Aretxabaletako eta Eskoriaztako udalek gazte teknika-ria kontratatu nahi dute. Denboraldi baterako izango da. Titulazioa: unibertsitateko diplomatura, lanbide hezkuntzako 3. maila edo baliokidea.

KZGUNEN IKASTAROA
Azaroaren 15etik 16ra, banketxeko kontuak Internet bidez zelan egin jakiteko ikastaroa, Kutxa banketxearen eskutik. Azaroaren 17tik 18ra, Messenger ikastaroa. Lagunekin zuzenean Internet bidez zelan berba egin argitzeko ikastaroa.

1974AN JAIOTAKOAK
Azaroaren 20an egingo dute kinto bazkaria 1974an jaio zirenek. Ormaiztegiara joateko asmoa dute. Izena emateko Arlutz tabernara joan behar da.

LORAMENDIRENAGENDA

HITZALDIA DIBORTZIOAZ
Dibortzioaren lege berriaren inguruko hitzaldia, Loramendik antolatuta, hilaren 14an, 19:00etan. Larraitz Ugarte eta Maider Morras abokatuek emango dute hitzaldia, udaletxe zaharrean.

BARRETERAPIA IKASTAROA
Gaur, egubakoitza, hasiko da Barreterapia ikastaroa. Datorren egubakoitzean, bigarren saioa izango da.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Militarrak herrian sartzea eragotzi

Espainiako soldaduek herrian maniobrak egin zituztela eta, alkatetzak dekretu bat kaleratu zuen, militarrei herrian sartzea debekatuz. Udala, gainera, haserre agertu zen, baimenik ez zutelako eskatu, eta militarren presentziak beldurra eragin zuelako hainbat herritarrengan.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Goseti"

Gose handikoa.
— Goseti utsa da gure txiki-xa.



JON IRAEGI

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburutegia Interneten dagoeneko

Orain arte udal liburutegietako katalogoak kontsultatzeko aukera zegoen Interneten. Aurrerantzean, berriz, katalogoa gaurkotua izango dugu, eta liburutegira joan gabe etxetik zerbitzua erabiltzeko aukera izango dugu. www.euskadi.net/katalogobateratua helbidean sartu behar da. Bertan, liburutegi guztietako katalogoak kontsultatzeaz gain, hartu nahi dugun liburua hartzeko moduan ote dagoen jakiteko aukera izango dugu. Hartzeko moduan egonez gero, eskaria egin eta liburuzainak liburua gordeko digu. Liburua hartua badago, berriz, mailegua egiteko modua izango dugu. Bestalde, nahi dugun liburua liburutegian ez badago, erosteko eskaria ere egin daiteke. Eta beste aukera bat da etxean daukagun liburua itzultzeko epea luzatzea. Zerbitzu horiek erabiltzeko, beharrezkoak dira irakurle zenbakia eta pasahitza izatea. Pasahitza liburutegian lor daiteke.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENENKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...
Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTROA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentroa
Santa Kurtz 24
20550 ARETXABALETA
Tel.: 616 965 795

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak


Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Lie


LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA


ATREBENTZIAEZPADA/ Badozu herriko KZGunera fateko ohiturarik?




AITOR BENGOA
Langabie




MILAGROS ZUBIZARRETA
Etxekoandrie



MERTXE ZAPATA
Langabie



MATEOS FERNANDEZ
Langillie



NAROA GURRUTXAGA
Langillie



MAITE PEREZ
Langillie

Bai, faten naz noixien behin, hamabostien behin. Gehixenbat ingurumeneko informazio bille faten naz, Interneten egoten da eta horren barri. Kzgunie ondo dauela uste dot.

Badakit Markolen dauena, baiñe ez naz faten. Etxien be badeukou ordenadorie, baiñe ni neu ez naz iñox ibilli. Egixe esatiarren, denporarik be ez dauket hola-ko gauzetan hasteko.

Bai, Interneten zelan ibilli ikestera fan izen naz, eta oin beste ikastaro batzuk egitteko asmue dauket. Batez be mendiko informaziñue topetan dot Interneten, eta korreuez be banabil.

Bai, egunero faten naz, Interneten ibilli eta korreue begiraketan. Interneten futboleko gauzak begiketan dittut. Kzgunie ondo dauela uste dot, gaiñera, konekziñue bizkorra da.

Faten naz, bai. Korreue begiraketan faten naz, eta Interneten biajiek merkiu egoten dienez, horreik be begiketan dittut. Hala eta be, noixien behin faten naz, ez egunero.

Ez naz iñox egon, baiñe entzun izen dot nun dauen. Ordenadorie etxien dauket, eta etxetik ibiltten naz Interneten. Batez be, herri-xen inguruko informaziñue billeketan dot.

TXALOAK ETATXISTUAK

1	2	3
1991-1995 UNAI India	1995-1997 BURAVU Kongo	1997-1998 S. CLEMENTE Kolombia
430 Ha. azpiti, 21 putzu, 12 Haur Hezitza eskola, farmak, gurtzarako jantziak abuzantzia	Zuzendaritza bulegoan bi eskola eta 19 gela. 1300 haur eskolatzen da.	S. Klemente Iratziarako eskola taler agintzaritza
1998-1999 CONDEGA I Nikaragua	1998-1999 CONDEGA II Nikaragua	1999-2001 UNAI II India
Ciudadak dien bitarteko eskola eta familia abantailak: Piztasunak, erretze, elikagaiak, teknika, fruituak.	Mitx eskola gaurtik premiazko laguntza. 30 eta 40. 3 kateak eta 10 irratia egin.	120 esan du bulari familia beharrezkoak, formazio zentrua eta insumo biltze.

TXALOAK HIRUATX INTERNETEN Hiruatxek, garapen bidean diren herrialdeei laguntza ematen dien taldeak, webgunea jarri du Interneten. www.hiruatx.tk helbidean, taldearen inguruko azken albisteak jakiteaz gain, esku artean zein proiektu dituen eta zein diru iturri dituen jakiteko aukera dago. Era horretan, gaurkotua goa izango dugu Hiruatxten gaineko informazio guztia. /M.A

ETABARRUAN...

KULTURA /04

POLITIKA /05

KIROLA /06

Kultura etxe berria

Xabier Sarasua zinegotziak esan digunez, kultura etxe berria egiten hasi beharra dago lehenbailehen.

Aretxa Aurrera osoko bilkuran

Aretxa Aurrera plataformako hainbat kide astean egin den osoko bilkuran izan dira.

Murruxikoren Mendi Astea

Murruxikok egitarau oparora prestatu du Mendi Astearen baitan. Azaroaren 22an hasiko da.

ASTEKODATUA

13

LAGUN, GAUR HASIKO DEN BARRETERAPIA IKASTAROAN


Loramendik antolatuta, gaur hasiko da ikastaro berria. Barreterapiaren ingurukoa da, eta gaur, egubakoitza, lehenengo saioa egingo dute. Guztira 13 lagunek parte hartuko dute.

BESTEKEESANA

“Nire ustetan, nahiko talde ona daukagu hor goian ibiltzeko; gure helburua ahalik eta goren gelditzea da eta mailaz igotzea ere helburuen barruan sartzen da, eta nik uste dut lehen bost edo seien artean geldi gaitzkeela, horretarako taldea badaukagula uste dut, pasa den urteko jokalariek berberak jarraitzen baitute, nahiz eta aldaketaren bat egon den. Orokorrean talde lana baloratuko nuke. Debagoieneko beste taldeen inguruan esango dut, Aloñatik jokalariek garrantzitsu batzuk joan direla eta talde gaztea dutela; Bergarak ere talde gaztea dauka, eta Mondraren taldea ere ona da, eta aurrealdea hobetu egin dute. Hirugarren mailara igotzeko hautagai bezala UDA ikusten dut”.

NEKA GALAN
ASTELEHENEKO GOIENKARIA/04-11-08

HERRITARRENBERBAK/ Fernando Berrizbeitia



Pirinioetako hartza eta euskara

Aste honetan Pirinioetako azken hartza-emea hil dute. Ehiztariak basurdean ari ziren, baina, hartza tartean jarri zitzaizten, kumea zeukan, zakurrekin borrokan hasi, eta abar... Kontua da, finean, hartza-eme hori, espezieak aurrera egiteko geratzen zen azken aukera, tiroz akabatu zutela Frantzia aldeko ehiztari batzuek. Jakina, bazter guztiak harrotu ditu berri horrek: orain haserreak, penak, salaketak... Uste dut ministro bat ere joan dela “hilketaren eskenatokia”, gorbata eta guzti. Baina nola hil daiteke espezie bateko azken emea? Hori astakeria. Nola liteke ehiztariak inguru horretan ibili ahal izatea? Baina benetako arazoa ez da hartza hau akabatu izana, benetako arazoa egoera honetara iritsi izana da. Esperantza guztiak indibiduo batengan kokatzen direnean, esperantzarako motibo gutxi egoten da. Gauzak dauden moduan

egonda, hartza gaixo hau 4x4 batek harrapatua, bere kumeak emandako disgustu bategatik, artzain haserretu baten mende-ku, edo ardi transgeniko bat jategatik hil zitekeen. Hau errematea besterik ez da izan. Euskara hartza eder bat bezala ikusten dut nik. Mendetan zehar Pirinio inguruan bizirik mantendu den hartza ederra eta handia. Kostata, aurrera atera da, mehatxu ezberdinak saihestuz, egoera diferente-tara egokituz, batzuetan ezkutatu beharrean, bestetan aurpegia emanez.... Euskara, zorionez, ez da hartza bakarra, ez dago hiltzerian, ehiztari solte batek ezin du akabatu. Baina erronka handi baten aurrean dago, betiko moduan. Ez gaitzean deskuidatu euskara eremu babestu batean bizi dela pentsatuz, zeren eta horrela eginez gero, egunen batetan edozein ehiztari-rena (eta ehiztariak sekula ere ez dira faltako) punteriarren menpean ikusiko dugu gure hizkuntza.

“Euskara ez da hartza bakarra, ehiztari solte batek ezin du akabatu, baina erronka handi baten aurrean dago”



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Zarata
ugeri

Azkenaldixen ez da zarataik falta herrixen. Erdialdien zulo galanta egin daue, ez dakitt ze fibra sartzeko. Bueno, gero telefono fakturie merkiaue izeten bada... Ja, ja...

Zapatuen a zelako juergie egin neuen herrixen. Zer eta Orly tabernan Mexikoko jaixe preparau euien. Julen, ugabazak, eta bere emaztiak urtebete bete euien ezkontute, eta biajian Mexikora fan zienez, urtebete beranduau herrire Mexiko ekarri gure izen euien. Ondo ibiliko zien oin dala urtebete, bestela etzeuien biajian akordetaik be gureko. Ez dakitt, iguel erromantiko jarten dabil herrixe azkenaldixen. Neuk be sometan dot holako premiña bat, iguel negue gainien dauela izengo da. Preparau egin biher, hotza dator eta!

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABAETA

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABAETA
Tel.: 943 79 04 39

ELKARRIZKETA

XABIER SARASUA/KULTURA ETA EUSKARA ARLOETAKO BATZORDEBURUA

“Erakunde publikoen laguntza barik ere kultura etxe berria egiten hasi behar dugu”

MARIA AGIRRE

Herriak kultura etxe berria behar duela eta hori egiten hasteko ordua iritsi dela uste du Xabier Sarasuak. Jaurilaritza eta Diputazioaren laguntza barik bada ere, datorren urte hasieran obrak adjudikatzeako asmoa dute.

Noizko kultura etxe berria?

Ahalegin bi egin ditugu dirulaguntzak lortzeko asmoz: Jaurilaritza eta Diputazioan, eta bietatik ezezkua jaso dugu. Kultura etxe berriak inbertsio handia eskatzen du, azken hamarkadetakoa handiena, eta ezinbestekoa da beste erakunde batzuen laguntza. Diputazioak Arrasate eta Bergarari lagunduko die, eskualdeko ardatz direla eta. Burumakur gaude, erakunde publikoetatik jaso dugun erantzuna dela eta. Hala ere, lehentasuna du Aretxabaetan kultur azpiegitura berria egiteak, eta erronka da datorren urte hasieran kultura etxe berriko obrak adjudikatzea. Proiektua landuta dagoenez, ez dago atzera egiterik. Erabakia hartzea bakarrik falta da. Erantzukizuna gure gain hartzeko ordua iritsi da.

Erakunde publikoen babes barik hasiko zarete?

Udalak inbertsio aldetik gutxi inbertitu du azken urteetan. Arlo ekonomikotik ondo gaude une honetan, baina inbertitzeko beharra badago, inbertitu egin behar da. Gero ere jarraituko dugu erakunde publikoetako atea jotzen.

Zerekin hasiko zarete?

Proiektu bi ditugu: kultura etxe berria eta auditorioa. Kultura etxea berriaren egongo dira: musika eskola, liburutegia, erakusketak gela, tailerretarako gelak, gazte txokoa, musika taldeendako lokalak... Herriko plazan, zinema zegoen tokian, eta alboko eraikinean egingo da kultura etxe berria. Hori guztia bota, eta gai-

nera, solairu bat gehiago egingo da. Proiektua aurreratuta dago, eta horrekin hasiko ginatke. Bigarren asmoa, berriz, auditorioa egitea da, gaur egun musika eskola dagoen tokian. Horren zirriborroa ere landuta dago. Hor egongo dira antzokia, hitzaldietarako areto handi bat... Hainbat funtzio beteko ditu auditorioak.

Kultura etxe berria herriko plazan eginez, plaza indartu nahi da?

Helburuetatik bat hori da. Herriko plazak asko galdu du azken urteetan, eta indartu egin nahi dugu. Hala ere, nire ustez, izugarritzko hanka-sartzea izan zen erdiko eraikina hezkuntzara zuzentzea. Horrelako eraikin bat Udalak bere esku ez izatea ikaragarritzko hanka-sartzea izan da. Hori litzateke kultura etxe berria egiteko toki egokiena.

Gainontzean, zelan ikusten duzu herriko kultura eskaintza?

Nire ustez, nahiko herri dinamikoak ditugu inguruan, baina azken urteetan behera etorri da parte-hartzea. Ekipamenduen gaiak lehentasuna du, baina horrek ez du kultura abian jarriko. Nahiko genuke patronatu antzeko bat sortu, eragile guztiekin harremanetan jarri eta zein behar dagoen jakiteko.

Bestalde, orain ari zarete gazte teknikaria aukeratzeko. Aretxabaeta eta Eskoriatzarako egingo luke lan, ezta?

Bai, bi herriek behar berak dituzte arlo horretan, eta uste dugu egokiena dela bietan lan egingo duen pertsona bat kontratatzea. Batean egiten duenak besterako ere balioko dio.

Zein adineko gazteendako egingo du lan?

Gazte guztiendako egingo du lan, hasi 12 urtetik eta 25 bat urtera arte. Gazteen aisialdian eskaintza oso eskasa dela uste dugu, eta horri erantzun egin behar zaio. Hori da erronka nagusienetarikoa



MARIA AGIRRE

“Hanka-sartzea izan zen herriko plazako eraikin nagusia hezkuntzara zuzentzea”

“Ez dugu jarriko teknikaria gazteak zaintzeko; gazteei laguntzea da helburua”

bat. Gazteen autonomia errespetatuz, Udalak laguntza eta instalazioak eskaintzeko asmoa du.

Gazteek zein harrera egingo diote asmo horri?

Udalak ez du ezer lortuko, gazteek uste badute eurak kon-

trolatzeko jarri dugula teknika-ria. Gazteei laguntzea da helburua, eta horretarako azpiegiturak ere eskainiko dizkiegu. Gazteek izan behar dute protagonistak. Asmoa da Gazte batzordea antolatu eta abian jarri.

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaeta
Tel.: 943 79 19 79

Martin
erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABAETA

URKULU

FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Torrebaso pasealekua 16/ ESKORIATZA
Tel.: 943 71 30 30/ Faxes: 943 71 25 55
urkulu@cadena88.com

EKONOMIA/ Eguzkigrafi kooperatibak 25 urte bete ditu hil honetan

Hiru inprimategi txiki elkartuta sortu zen Eguzkigrafi duela 25 urte

M.A

Aretxabaletako Industrialdean kokatua dagoen Eguzkigrafi kooperatibak zilarrezko ezteiak bete ditu hil honen hasieran. Duela 25 urte sortu zen Eguzkigrafi, Arrasate eta Aretxabaletako hiru inprimategi txiki bat egin ondoren. Ordutik hona asko aldatu da lan egiteko modua.


Arrasaten kokatuta zeuden Gráficas Mondragonesa eta Gráficas Goya eta Aretxabaletako Gráficas Lénizek bat egin, eta kooperatiba eratzea erabaki zuten duela 25 urte. Hortik sortu zen egun eza gutzen dugun Eguzkigrafi kooperatiba.

ARRASATEN HASIERA

Arrasaten, Legarreko pabilioetan, hasi zuten ibilbidea Eguzkigrafi. Handik 5-6 urtera Aretxabaletara etorri ziren, Industrialdera. Urte batzuk bertan egin eta herrian Industrialde berria egin zutenean, lekuz aldatu zuten inprimategia, eta ordutik hona bertan jarraitzen dute. Egundak 19 bazkide ditu Eguzkigrafi, eta egungo teknologiaz lagunduta, inprentan egin ohi diren lanak egiten jarraitzen dute. Eguzkigrafi presidentea Julen Garcia esan digunez, katalogoak, aldizkariak eta oroigarriak egiten dituzte gehienbat, eta inguruko enpresendako egiten dute lan bereziki. "Eskualde honetan jardura ekonomiko handia dago, eta horri esker inprimategian nahiko lan dugu". Baina arlo horretan kompetentzia izugarria dela eta, ez daude atseden hartzeko moduan. Horregatik, etorkizunari begira daude etengabe, eta inbertsio handiak egiteko aukera aztertzen ari dira. "Aurrera begira, lau koloretan inprimatzen duen makina erosi nahiko genuke, hori litzateke etorkizuneari egingo genukeen apusturik garrantzitsuenak."

INPRENTA ASKO ALDATU DA

Esan beharrik ere ez dago, inprenta arloa izugarri aldatu da, eta horren berri badu Julen Garcia. Duela 40 urte hasi zen Nafarroako inprimategi batean lanean,



MARIA AGIRRE

Julen Garcia Eguzkigrafi presidentea da gaur egun.

eta ondoren, Gráficas Mondragonesa pasatu zen. Bere esanetan, lehen gehiago egiten zuten lan artisauen erara; gaur egun, berriz, makinek asko erraztu dute lan egiteko era.

Duela mende erdi elkartu ziren hiru inprimategietatik, berriz, Gráficas Goya zen zaharrena. 1940. urte inguruan sortu zuten inprimategi hori Fortunato Bedia izeneko gizon batek Arrasaten, baina handik gutxira Joxe Azkaratek hartu zuen gidaritza. Aretxabaletan, herriko plazan zegoen Gráficas Léniz, berriz, 1961ean eratu zuten Manolo Zubillaga eta Mari Jose Lasagabasterrek. Julen Garciaen berbetan, hiru inprimategiek antzerako lana egiten zuten, eta hobetu beha-

rra zegoelako erabaki zuten bat egitea. Urte gutxira, gainera, orduko Ularcon, gaur egun MCC denean, sartzea eskatu, baina ezetz erantzun zieten. "Ez zuten guran konfiantzarik. Beharbada sektorean ez zuten sinesten. Hala ere, Eguzkigrafi langileak Lagun Aroko bazkide dira.

25 URTEAK OSPATU ZITUZTEN

Eguzkigrafi bazkideek joan den egubakoitzean ospatu zuten urtemuga. Autobusez, 16 lagun Nafarroara joan ziren. Goizean Oliteko gaztelua bisitatu zuten, eta ondoren Tafallara joan ziren, txikito batzuk hartuz. Bazkaria ere bertan izan zuten, Tubal izeneko jatetxe ezagunean. Oso ondo igaro zuten eguna.

*Gráficas Goya,
Mondragonesa eta
Léniz elkartuta
sortu zen
Eguzkigrafi*

*Etorkizunari begira,
lau koloretan
inprimatzen duen
makina erosi nahiko
lukete*

LABUR

Urkulu berritzeko proiektua Gipuzkoako Diputazioaren esku geratu da

Diputazioaren ardura izango da Urkulu berritzeko obrak esleitzea, eta gainera, Foru Aldundiak ordainduko du obra. Joan den astelehenean egindako osoko bilkuran, Udalak espediente artxibatatu zuen, eta era horretan Diputazioaren esku utzi du lan hori. Arritxu Oliden alkateak zehaztu zuenez, proiektuan ez da aldaketarik izango, Udaleko Hirigintza Sailak egindako proiektua egingo du Diputazioak. Errepidearen mantentze-lanak noren esku geratuko den galdetuta, berriz, Ur Patzuergoarekin harremanetan jarri eta hitzarmen bat sinatzeko gertu azaldu direla jakinarazi zuen.

Urkulu berritzeko lanak aurtan hasi, baina datorren urtean bukatuko direla adierazi zuen Oliden alkateak. Goroetatik aurrera dagoen errepidea asfaltatu egingo dute, besteak beste.

Aretxa Aurrera plataformak apartheid politikoa salatu eta irtenbidea eskatu du

Aretxa Aurrera herri plataformako kideak osoko bilkurara joan ziren, joan den astelehenean. Aretxa Aurrera eta Herriaren hitza errespetatu zioten orriak eskuetan, legez kanpo dagoen Batasunak bizi duen apartheid politikoa salatu nahi izan zuten. Osoko bilkura bukatu zenean, idatzi bat irakurri nahi zutela esan eta hala egin zuten. Idatzian, bazterkeria politikoa salatu eta neurriak hartzeko eskatzen zuten. Era horretan, zinegotzi batzuei dagozkien aulkariak ez dagozkiela, eta kargua uzteko eskatu zieten. Kargurik hartu ez dutenei, berriz, tokia eurei uzteko ahalegina egiteko eskatu zieten. Aretxa Aurrera herri plataformako kideen ustez, badira bazterkeria politikorekin amaitzeko bideak.




Iralabarri plaza edo kalea izan daiteke

Udaleko artxiboko agirietan agertzen bada behintzat, Iralabarri izena jarriko diote Beroako gunean egiten ari diren etxe berrien kaleari. Asteleheneko osoko bilkuran, 36ko gerra aurretik gune horri hala deitzen zitzaioela jakinarazi zen. Gerra ostean, berriz, Ensanche eta gerora, Araba etorbidea izena jarri zioten. Udalbatzak aho batez onartu zuen izen topnimikoen alde egitea, eta Iralabarri izango dela erabaki zuten. Ikusi egin behar Iralabarri kalea edo plaza izango den.

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko



**Mobiliario
ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Jou Diaz
Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

ALBERTO ETXEBARRIARI OMENALDIA EGINGO DIOTE HAINBAT ELKARTEK

Mendiak eta herriak ardatz izango ditu Murruxikoren Mendi Asteak

Jon Beloki mendizaleak 'Jainkoen altzoan' ikus-entzunezkoa erakutsiko du

M.A.

Abenturaz beteta dator Murruxikox antolatutako egitaraua. Aretxabaletar batzuek aurten mendietara eta herrietara egin dituzten bidaiak nagusi izango dira, eta Jon Beloki mendizalearen ikus-entzunezkoa ere aukeran izango da, hilaren 26an.

Azaroaren 22an hasiko da Mendi Astea, eta 27an bukatu. Egun horretan omenaldia egingo diote Alber-

to Etxebarriari, Murruxiko elkar-tearen sortzaileetarik bati. Hala ere, mendi taldeak ez ezik, beste talde batzuek ere eskertu nahi diote Albertori egindako lana: herriko argazki taldeak, Arrasate Musikalek eta Felix Inurrategi Baltistan Fundazioak. Alberto Inurrategi fundazioko kideak azaldu digun moduan, Pakistango Baltistan eskualdetik, Matxulutik, ekarritako abrikotondo bat landatuko dute fundazioko kidearen omenez. Aretxabaletako udal-terren lorategian ere bada horre-

lako zuhaitz bat Felixen omenez, eta hilaren 27an beste bat landatuko dute Kurtzebarrin, Alberto Etxebarriaren omenez. Ondoren, berriz, bazkaria egingo dute Taberna Berri jatetxean, eta izena emateko Murruxiko elkartera joan behar da, hilaren 16tik 23ra, 18:30etik 19:00etara. Gainontzean, bidaietan, eta mendietara egindako espedizioetan ateratako diapositibekin emanaldiak izango dira aste osoan. Emanaldi horiek guztiak Kurtzebarri eskolako aretoan izango dira, 19:00etan.

Hiru aretxabaltarren diapositiba emanaldia



MIKEL SASIAIN

ANDE PERUARRAK

Azaroaren 22an azalduko du Mikelek Perura egindako bidaiak. Ez zen bakarrik izan abentura horretan, eta diapositiba emanaldian ere hala izango da. Lau lagun etorriko dira, hiru arrasatear eta aretxabaletarra.

Aurtengo udan joan ziren Perura lau lagunak, hainbat mendi igotzeko asmoz. Hasieran, 5.000 metroko hiru mendi igo zituzten. Ondoren, 6.000ko beste bi etorri ziren: Altamaio eta Arteson. Mikelek kontatu digunez, Arteson tontorrera iristeko ordu asko behar izan zituzten.

Eta bukatzeko, Esfinge mendiaren 800 m-ko horma igo zuten eskalatzan. Egun bi behar izan zituzten horretarako, eta horman zintzilik lo egin behar izan zutelako kontatu ditu Mikelek.




JOSEBA URKIA

LENIN MENDIA

Azaroaren 23an izango da Josebaren txanda.

Joan den udan izan zen Joseba Kirgizistango Errepublikan, bertan baitago Lenin Mendia. Guztira zazpi lagun joan ziren mendia igotzeko asmoz, baina ezin izan ziren tontorrera iritsi. 7.134 m ditu mendiak, eta hirugarren kanpamenturaino iritsi ziren, 6.200 metrora. Kontua da, tontorra egin behar zuten egunean, eguna haizetsu esnatu zela eta ezin izan zutelako tontorrera iristeko ahaleginik egin.

Josebak azaldu digunez, altuerak eragiten dituen eragozpenez gain, Lenin mendiak ez du aparteko zailtasunik, mendi erraza da. "Hori bai, mendi polita da". Emanaldian, gehienbat mendian ateratako diapositibak erakutsiko ditu.



JOSU VELASCO

BIZIKLETAZ BIDAIA

Azaroaren 25ean, bizikletaz egindako bidaiaren berri emango du Josu Velascok.

Sekulako bidaiak egin zuen aretxabaletar honek, 2003ko maiatzean atera baitzen etxetik eta aurtengo ekainean iritsi baitzen. Aretxabaletatik Jerusalemara bizikletaz iritsi zen, 12.000 kilometro bizikleta gainean egin ondoren. Europa osoa, Turkia, Siria, Jordania, Palestina eta Israel ezagutu zituen bizikleta gainean. Ondoren, autobus eta trenak hartuz Iran, Arabiar Emirerri Batuak eta Yemenera iritsi zen. Pentsatzekoa den moduan, horrelako bidaiak egin ondoren, abentura mordoa izango du Josuk.

Diapositiba gehienak European atera zituenez, bertako irudiak erakutsiko ditu gehienbat.

LABUR

Belarrezko zelaia egin nahi dutela dio UDAko presidentek 'Asteleheneko Goienkaria'-n

Asteleheneko Goienkariak futbolaren gaineko gehigarria kalera tu zuen, hilaren 8an. Ibarreko futbol taldeen gainean luze hitz egin da gehigarrian, eta Jokin Antxia, UDA-ko presidentek aurrera begira dituzten asmoen berri ematen du. "Harro sentitzen naiz aurtengo denboraldian egiten ari garenekin, batez ere hor goian jarraitzen dugulako, eta jokoa ere oso ona delako. Honek indarra ematen du lanean aurrera jarraitzeko, eta proiektu berriak aurrera eramateko; hauen artean, esku artean daukaguna futbol zelai-ko belarrarena da. Hain zuzen, hemendik 2-3 urtera, zelai gaineko alfombra aldatzeko asmotan gabilta".

Gehigarrian, gainera, argazki ugari datoz. UDAko talde guztien argazkiak, hain zuzen ere.



Negua datorrela eta, aterpea tabernan

Ibarra futbol zelaiko tabernari aterpea jarri diote. Negua datorrela eta, neurriak hartu dituzte. Eta horrela egin zuten joan den domekan harmailletatik partidua ikustera joan ziren lagun batzuek ere; zer eta manta bat eraman zuten! Zoritxarrez, ez zuten manta kendu beharrik izan golen bat ospatzeko. EHU-ren aurka jokatutako partidua 0-0 amaitu zen. Domekan, berriz, Pasaiaren aurka jokatuko du partidua preferenteko UDAk, eta partidua hori ere etxean jokatuko du, 14:30ean.

FUTBOLEKO EMAITZAK

UDA 0 EHU 0

Preferentea.

Zarautz 2 UDA-ARIZ. 1

Ohorezko jubenilak.

UDA-ARIZ. 1 Burumendi 0

Lehenengo mailako jubenilak.

Oiartzun 2 UDA-ARIZ. 2

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA-ARIZ. 0 Ikasberri 0

Bigarren mailako kadeteak.

UDA 2 Eibar. 3

Ohorezko infantilak

Elgoibar 2 Arizmendi 0

Infantil txiki.

GORKA GARAI

taxi gidaria

TAXI

Telefono Mugikorra:
607 318 560

Maritxu
drogeria
mertzzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

KTIPOS
ZAPATA DENDA



Murubide 2 behea • Aretxabaleta • Tel.: 943 53 37 33

Arotz lanetan behar duzun guztia



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20



ARDATZA


Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



HURRETIK

NIREBIDAIAHURA / Oier Etxeberria



Gorka Uriarte

Pelukerue

Mondraguen dauko pelukerixie Gorkak. Oin obretan dabitz, eta bittartien Aretxabaletara etorri da, bertan geraketako asmuez. Bezeruek pozik eta egindako lanaz gustora urten daixien arduraketan da. Psikologo lanetan ibiltzen dala be esaten dau.

Ze moduz barriro be Aretxabaletan?

Oso pozik, lanerako eta negoziue martxan jarteko gogo haundixez. Etxez etxe hasi nitzen, eta 1986. urtien Aretxabaletan jarri neuen lelengo pelukeixie. Gero Mondraguen, eta oin bueltau egin naz hona. Gaiñera, ez dauket Aretxabaletakue ixteko asmorik.

Ze oroitzapen dittuzu?

Oso onak; izen be, bezeruekin primeran konpondu izen naz beti. Eurek be ondiokan egitten daue berba orduko kontuez.

Zelakue izengo da Mondragueko pelukerixie?

Tokixez disfrutetako modukue izengo da. Modernue eta beti be bezeruengan pentsaute. Trankil egoteko tokixe.

Ez zara familixako pelukero bakarra.

Ez. Aitte be pelukerue zan, anaie horretan dabil eta arrebiei be ule kontuek gustetan jako.

Anaie New Yorkean dabil lanien. Hara fateko asmorik?

Lanera fatekotan, urtebeterako-edo fango nitzake. Bestela, ez dauket zerotik hasteko asmorik. Gaiñera, oso pozik nau hamen. Hamazortzi urte eukiko banittu... Bisitan bai, bederatzi bider egon naz, eta aurten be fango naz. Benetan hiri edarra dala pentsetan dot, danetik aurkittu zeike bertan.

Ze egingo zeuke burusoil geratute?

Harrotasunez erakutsiko neuke burue, eta tokau jatenaz konformau biherko neuke. Izen be, pelukiñak jartie ez jat oso egokixe pentsetan, oso zatarrak diela uste dot.

Esan dutzezu sekula norbaittei ez dutzezule ulie gure dauen moduen moztuko?

Ez dutzet inori ezetzik esan. Baiñe bezeruez negoziatan ahalegindduko nitzake, beretako aproposau dan zeoze topetan ahaleginddu.

Zer daukie pelukeruek psikologuena?

Asko. Hogeita bi urtien lan mordue egin dot psikologo moduen. Arazuek entzutie gustetan jat, eta gaiñera, konponketako aukerie badauket, ahaleginddu egitten naz.

Zeinei aldatuko zeuskio ulie?

Sara Montiel, Marujita Diaz eta Rocio Juradoi. Oin moduen itxiko neuskio Albako dukesiei, bestela be txarto egongo da-eta.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Txina / 2004ko uztaila ezker bizi da han

Oier Etxeberria aretxabaletarra Txinan bizi da, Coprecik zabaldu duen lantegira joan baita lan egitera. Internetek eskaintzen dituen erraztasunekin baliatuta, berarekin harremanetan jarri, eta Txinako berri eman digu.

Oierrek esan digunez pozik dago Txinan, nahiz eta kostatu egin zaion bertako janarietara ohitzea. Zuhai eskualdean, kostaldean dagoenez, arraina jateko aukera du. Fruitu eta barazki mordo ere ba ei dago, batzuk ezezagunak. Ondo bai, baina dagoeneko hasi da hemengo gauzak faltan sumatzen. "Familiartekoak eta lagunak sumatzen ditut faltan, baina baita mendiak ere. Saiatu gara gora egiten, baina oiha itxiek in topo egin dugu segituan".

Txinatarrek langile ospea dutela eta, horren gainekoa izan da egin diogun beste galdera bat, eta hemen bai, harritura utzi gaitu Oierrek: "Txinatarrek lan handia egiten zutela uste genuen, baina funtzionarioek 35 orduko lan astea dute, eta enpresetan 40 ordu eta astean bost egunez egiten dute lan. Gainera, langileei janaria eta lo egiteko ohea eskaini behar zaie. Bazkalostean, bestalde, 20 minutuko siesta egiten dute gehienek. Dauden tokian daudela, lo seko geratzen dira, baita bulegoan ere. Hori bai, seriotasun han-



"Gure logikak ez du hemen balio, eta askotan, ulertzen ez ditugun gauzak gertatzen dira"

"Bazkalostean 20 minutuko siesta egiteko ohitura dute. Edozein tokitan geratzen dira lo"

diz egiten dute lan, eta guztia birritan gainbegiratzen dute". Patxada handikoak ei dira txinatarrek, eta autoa gidatzen oso txarrak: "Oso gaizki gidatzen dute, baina ez da istripu askorik izaten, poliki-poliki ibiltzen direlako. Bizikletaz ere kontuz ibili behar da, baina bidegorri mordo dago eta oso laua da".

Jakina, aldaketak sumatu ditu hizkuntzan eta pentsateko moduan ere: "Gure logikak ez du hemen ezertarako balio, eta askotan ulertzen ez ditugun gauzak gertatzen dira". Eta txinatarrek zelakoak diren galde-tuta, atzerritarrekin harremana izatea gustuko dutela, jatorrak direla, baina alemaniarrak baino itxiagoak direla esan digu Oierrek.

Txina ezagutzeko aukera handirik ez du izan orain arte. Gainera, dio autobideetatik ateratzerakoan oso zaila dela nahi duzun tokira joatea. Asteburuetan, kirola eta erosketak egin, deskantsatu, eta ikusizunetara joaten da. Gainera ez dago bakarrik. Neskalguna eta

Arrasateko bikote bat ere Txinan daude. Abenduan edo urtarrilean etorriko da herrira Oier, baina denbora laburrerako. Berritua bueltatuko da Txinara, hiru bat urte emango baititu bertan.

MARIA AGIRRE



Oier, Txinako azoka batean erosketak egiten.

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETAKO
Tel. 943 79 29 26

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAKO

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETAKO
Tel: 943 79 01 28

ARQUERO

CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETAKO

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 12a / 187. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardok • Durana 11 • 20550 AFFIXABALETA • Tel.: 943 79 36 21 • Faxa: 943 77 16 54 • Posta elektronikoa: zebair@goi.net.eus • Lagere gordailua: SS200/99

Posta eleaniztasunaren aldeko mozioa onartu du Eskoriatzako Udalak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Estatuko posta zerbitzuak bere jabetzako elementu guztiak hizkuntza bakarrean jartzeko proiektua abiarazi du. Hizkuntza eskubideak urratuko lituzkeela ikusita, Eskoriatzako Udalak bat egin du Eleaniztasunaren Aldeko Erakundeak aurkeztutako mozioarekin.

Eskoriatzako Udalak hizkuntza eskubideekin lotutako erabakia hartu zuen azken osoko bilkuran. Posta zerbitzua izan zuten hizpide, eta horri buruzko mozioa onartu zuen udalbatzak.

ELEANIZTASUNA BERMATU

Eleaniztasunaren Aldeko Erakundeak aditza eman duenez, Correos y Telegrafos SA enpresak irudi korporatiboa aldatu gura du, eta Correos hitza gaztelaniaz soilik agertuko lituzateke. Erabakiaren kontra daudela helaraziko dio Udalak EAEko Legebiltzarrari. Euren jabetzako elementuetan -bulego-errotuluetan, postontzietan, ibilgailuetan...- euskara berdintasunez erabiltzeko eskatuko dute. Hala, "zigilu eleaniztunak" mozioa onartu zuten azken osoko bilkuran.



Hizkuntza eskubideak urratzeko arriskua égon daitekela ikusita eleaniztasunaren alde egin du Udalak.

1850. urtea ezkerre lau mila zigilu atera ditu Estatuko posta zerbitzuak, eta horietatik, hamarrek baino gutxiagok izan dute euskarazko hitzen bat edo beste. Elea-

niztasuna bermatzeko gehiago ekoitz ditzatela eskatzen duen mozioa onartu zuen Udalak.

Euren erabakia Legebiltzarrari ezagutaraztea da helburua, eta

bertako talde politikoen Diputatu-
tuen Kongresuko Mahaiari eskatuko diote hizkuntza aniztasuna bermatzeko lege proposamen bat egin dezala.

Estatuko posta zerbitzuak gaztelania hutsez jarri nahi ditu bere jabetzako elementuak

1850a ezkerre lau mila zigilu kaleratu dituzte; hamar baino gutxiago euskaraz idatziak

Hizkuntza eskubideak urratuko diren kezka helaraziko diote Legebiltzarrari



Bisitari ugari jaso ditu 'Aurora 2001' erakusketak

Aurora 2001 erakusketak arrakasta handia izan du. Egune-ro bisitari ugari izan ditu erakusketak. Bestalde, iragan asteburuan jende kopuru handia gerturatu zen kultura etxera, fenomeno natural horri Kanadan hartutako irudiak ikusteko; hain zuzen, 30 lagun gerturatu ziren hilaren 6an. Erakusketako arduradunak aditza eman du eskoriatzarrak jakin-min handia erakutsi dutela. Aurorak nola sortzen diren erraz ulertzeko aukera domekara arte. /Z.V.M.

LABUR

Euskarazko jolasak ikasten hasiko dira bihar Eskoriatzan

Bihar emango diote hasiera aurtengo Euskarazko Jolasen ikastaroari. Guraso eta haurrei zuzendutako ikastaroa antolatu dute, batetik; zero eta bost urte bitarteko haurren jolas eta abestiena, bestetik. x lagunek eman dute izena aipatu ikastaroetan.

Pilotalekuan elkartuko dira 10:30ean, eta 12:30ak arte arituko dira, besteak beste, sokasalto, baloi, mimika eta trebetasun jolasak ikasten. Hurrengo eskolak azaroaren 20an eta 27an emango dituzte.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

IPUIN KONTAKETA

Datorren egunean, azaroak 18, umeek hitzordua izango dute Eskoriatzako Bibliotekan. Izan ere, eurentzako ipuin kontaketa antolatu du Udalak. 18:00etan hasiko da.

KONTZERTUA CIPRI'S TABERNAN

Eskoriatzako Askatasunak antolatuta, *Musikaz Blai*, *Presoak Etxera* kanpainaren barruan, Los Cretinos eta Lukas Prest taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, azaroak 13. Cipri's tabernan izango da hitzordua, 18:30ean.

AXTROKIRENAGENDA

BERTSO ESKOLA ATZERATUTA

Leintz Bertso Eskola gaur hasteko zen arren, hilaren 19ra arte atzeratu dute. Intxaurtxueta auzoan dagoen Euskal Txokoa elkartuko dira datorren egubakoitzean. Argibide gehiago 943 71 54 34ra deituz.

OSO OHIKOA DA GAUR EGUN EUROPAN CAPOEIRA IKASTEA

Brasildar doinuek lagunduta 20 lagun capoeira ikasten

Z.V.M.

Hogei pertsonak ikasten dute capoeira Eskoriatzan. Astelehen, martitzen eta eguenetan ematen dituzte eskolak pilotalekuko gimnasioan. Doinu brasildarrez lagundutako borroka-arte irakasten dihardu Igor Ezpeleta eskoriatzarrak. Edozein momentuan eman daiteke izena.

Urriaren 4an hasi ziren capoeira eskolak. Portugesek Afrikatik Brasilerara eramandako esklaboek sortua, musika eta dantza nahasten dituen mugimendu erritmikoz osatutako borroka-arte da capoeira.

Igor Ezpeleta eskoriatzarra da irakaslea. Urte eta erdi darama Igorrek kirol hau praktikatzeko. "Edinburgora joan nintzen. Ordu arte, futbola praktikatzeko nuen, baina han ez nuen talderik aurkitu". Egun batean capoeirari buruzko kartel bat ikusi eta izena ematea erabaki zuen. Orduan hasi zuen bere bizitza nolabait aldatu duen abentura hau. Astean hirutan ematen ditu eskolak. Astelehen eta eguaztenetan 19:15etik 21:00etara; eguenetan, berriz, 10:30etik 12:00etara. Besteak beste, Eskoriatza, Gatzaga, Arrasate, Bergara, Azkoitia eta Elgoibarko 20 pertsona inguru dabilta ikasten.

"Poliki-poliki ikasten den borroka-arte da. Zaila dirudien arren, edonork praktika dezake. Taldean 15 eta 40 urte bitartekoak daude eta beste talde askotan 5 urteko umeetatik hasita 60 urte artekoak ere ikusi ditut", azaldu du Igorrek. Oinarrizko mugimenduak ikasten dituzte; eskola amaieran *roda* izenez ezagutzen den borobil bat egiten dute. Binaka irteten dira erdira ikasitakoa praktikan jartzeko. "Funtsezkoa da, mugimenduak jakin arren borrokan zabiltzala ez dakizu nola erantzungo duzun-eta". Gorputz mugimenduen istorio bat kontatzen dute, eta bai abesti eta baita instrumentuen ere garrantzi handia dute.

CAPOEIRAREN HISTORIA

XVI. mende inguruan azukre-kanabera uztetan lan egiteko Afrikatik



Eskola amaieran borobil bat egin eta ikasitakoa praktikan jartzen dute.

Eguneka edota hilabeteka ordain daiteke capoeirako ikastaroa

Poliki-poliki ikasten den borroka-arte da, eta edozeinek praktika dezake

Brasilerara esklabo mordoan eraman zituzten. Esklaboen askatasun behararen aurrean, capoeiraren lehen arrastoak agertu ziren. Senzalaseta esklaboak bizi eta lo egiten zuten tokia hasi ziren. Dantzetan ezkutitzen zuten borroka, euren zaintzaileek debeka ez zezaten; halaxe dio kondaira batek bederen. Esklabotza desagertuta, morroi izandakoak hirietara joan ziren. Ez zuten gizartean euren tokia aurkitzen eta ondorioz, lapur eta hiltzaile bihurtu ziren asko; capoeiraz baliatzen ziren gura zutena lortzeko. Hala, izen txarra hartu zuen capoeirak eta debekatu egin zuten. Errepublikako kode penalak praktikatzeko zutenei hiru hilabeteko kartzela zigorra ezartzen zien. Asiatik mundu osora zabalduak borroka-arteek indarra hartu, eta capoeirari buruz zegoen ikuspegi oke-

rraz jabeturik, Manoel Dos Reis Machado edo Mestre Bimbak eskualde-capoeira sortu zuen. Kiroltasuna du ezaugarri nagusi eta ez horrenbeste maltzurkeria. 1953. urtean debekua altxatu zuten, eta capoeira praktikatzeko askatasuna eman zien orduko Gobernuak brasildarrei.

ETORKIZUNEN ASMOA

Talde sendo bat sortu eta Edinburgon ikasi zuen taldearekin trukea egin gurako luke Igorrek. Horretarako aukera dagoen denborarekin ikusiko dute. "Polita izango litzateke beste toki batzuetako jendea etortzea", eman du aditzera Igorrek. "Dantzari egunaren antzerako zerbait sortzea da epe luzeko asmoa. Kultura berriak nahastea interesgarria dela uste dut-eta", azaldu du.

LABUR

Udaltzain probak egin dituzte gaur goizean Arkauten

Gaur, egubakoitza, egin dituzte Eskoriatzako udaltzain posturako lehen probak. Azterketa fisikoa egin dute goizean Arkauten -Araba- bildutakoek. Hala, hautagaien indarra, malgutasuna, abiadura, arintasuna eta erresistentzia neurtzeko ariketak egin dituzte, besteak beste.

Ekainaren 7an egin zuen publiko lanpostu deialdia Eskoriatzako Udalak. Guztira 31 pertsona eman zuten izena, eta horietatik 25 izan ziren hautagaien zerrendara igaro zirenak.

Proba gehiago egingo dituzte datozen asteotan, nahiz eta data zehaztu gabe egon. Orain arte udaltzain bakarria egon da Eskoriatzan, eta behin proba guztiak pasatuta, bi pertsona arituko dira herria zaintzeko lanean.

Azaroan emateko bi ikastaro antolatu ditu KZguneak


Azaroan ere KZguneak ikastaroak antolatu ditu Eskoriatzan. Izena emateko aukera dute oraindik interesatuek. Hala, datozen asteotan bi ikastarotan aritzeko aukera izango da, kultura etxean kokatuta dagoen gunean.

Datorren astean Internet KZgunea kurtsoa hasiko da. Astelehenean emango diote hasiera, eta hilaren 26ra arte emango dituzte eskolak, astelehenean egubakoitzera. 11:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da.

Bestalde, azaroko bigarren ikastaroa nagusiei zuzenduta dago; Nagusiweb deitzen da. Hamar ordu iraungo du, eta datorren azaroaren 22an hasi eta 26an emango diote amaiera. Orduetegiari dagokionez, 09:00etatik 11:00etara izango dela eman du aditzera KZguneako arduradunak, eta eskoriatzar guztiak animatu gura ditu ikastaroetan izena ematera.

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71



Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.

Torrebaso 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
SPAIN
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



EGUN OSOAN EGONGO DIRA IKUSGAI POSTUAK


Hamabost artisau domekan San Milixaneko azokan

Z.V.M.

Hamabigarren artisau feria egingo dute domekan Gatzagan. Izan ere, San Milixanak ospatuko dituzte. Askotariko gaiak lantzen dituzten artisauek bisitatuko dute herria, eta horiek ikustera jende asko gerturatuko dela uste dute antolatzaileek. Goizeko 10etan hasiko da eguna.

Domeka honetan, azaroak 14, San Millan edo San Milixan feria ospatuko dute gatzagarrek. Hamabigarren aldiz antolatu dute azoka, eta urtero bezala, jende asko gerturatuko dela iritzi diote antolatzaileek.

Ondorioz, giro polita sortuko da domekan. Goizeko 10etan hasita artisauek ikustera joandako lagunak hartuko dituzte herritarrek. Eguraldi iragarpenak ez dira oso baikorrak, eta batzuek domekan euria egingo duela esan arren, ibarreko eta baita kanpoko jende ugari gerturatuko da ziurrenik herrira. Izan ere, askorentzat urteroko hitzordu bihurtu da San Milixan azoka.



Aurten ere, artisauek lanean ikusteko aukera izango da Gatzagan.

HAMABOST POSTU DOMEKAN

Herriko frontoian kokatuko dituzte salmenta postuak. Goizeko 10ak inguru irekiko dituzte artisauek salmenta tokiak.

Goizetik, trikitilariak giroa berotuko dute euren doinu biziekin. Artisauek bazkaltzeko tartetxo bat hartuko dute 15:00etatik 17:00etara; itxita egongo dira, beraz, postuak.

Askotariko gaiak jarriko dituzte salgai. Lore lehor eta xaboi naturalek euren tokiak izango dute. Baina ez da izango gai naturalekin zerikusia duen postu bakarra. Izan ere, aloe vera, sendabelarrak eta produktu biologikoak erakutsi eta salduko dituzten postuak egongo dira ikusgai, besteak beste, pilotalekuan.

Arropak ere izango du bere tokiak. Esate baterako, euskal jantzi tradizionalak egiten dituztenak, ehun diseinatzaileak, eskuz margotutako arropen egileak... egongo dira Gatzagan. Askotari-

ko aukera eskainiko du artisau feriak aurten ere San Milixanetan.

GATZ MUSEOA ZABALIK

Gatz museoa zabalik egongo da domekan ere. Aitziber Gorosabel, bertako arduradunak aditzera eman duenez, 11:00etatik 14:00etara bisitak egingo dituzte museoan. Egunerok ematen dituen azalpenak jasoko dituzte bertaratzen direnek. "Jende asko pilatzen bada, taldeak egingo ditugu pertsona larregi museo barruan ibili ez dadin", azaldu du. "Dorla eraikin kanpoko aldean, berriz,

Guztira hamabost saltoki jarriko dituzte pilotalekuan; askotariko gaiak ikusi eta erosteko aukera egongo da

umeentzako eskulanak egingo ditugu". Horretarako, gatzaz izango da erabiliko den gai nagusia, eta besteak beste, "plastilinarekin jolastu, koloretako gatzaz erabili eta maskarak egingo dituzte gatzarekin", jarraitu du Aitziberrek.

SORGINEN PRESENTZIA

Azken urteotan bezala, aurten ere ez dute hutsik egingo Gatzagako Sorginek San Milixanetan. Izan ere, emakume taldeak bere gain hartu du azkenaldian azoka egunean taloak egitea. Buru-belarri arituko dira aurten ere.



ARTXIBOA

Eskarmentu handiko eskiatzaileek praktikatzen dute muturreko eskia.

MUTURREKO ESKIA/ Diapositiba emanaldia

Eneko Pou bihar Garro Jauregian

Z.V.M.

Muturreko eskia buruz gehiago jakin nahi dutenek hitzordua dute bihar Gatzagako Garro Jauregian. Izan ere, Eneko Pou mendizaleak gai horrekin lotutako diapositiba emanaldia eskainiko du. Bere esperientziaren berri emango du arabar gazteak.

Biharko, azaroak 13, diapositiba emanaldia antolatu du Leintz Gatzagako Udalak. Garro jauregian izango da hitzordua, 19:00etan. Muturreko eskia buruz hitz egingo du Eneko Pou mendizale arabarrak. Beraz, kirola atsegin dutenek mendiko profesional honen eskutik muturreko eskia buruzko pasadizoak entzuteko aukera izango dute.

MUTURREKO ESKIA PRAKTIKATZEN

60ko hamarkadan hasi zen eski modalitate hau indarra hartzen. Inklinazio handienak dituzten

hormak bilatzen dituzte; segurtasunari lehenetsua ematen zaio kirol mota honetan, eta ez horrenbeste jaitsierako abiadurari. Urte askotako esperientzia dutenek lortzen dute muturreko eskian aritzea. Pista barru eta kanpoan ordu asko eta asko sartutakoak izaten dira, hain zuzen ere, modalitatea praktikatzen dutenak.

Nahiz eta Eneko eskaladak ezagun egin duen, eskia eskia lotura handia du arabar honek. Goi-mendiko euskal eskolako irakasle eta eskiko irakasle diplomatua da Eneko. Txikitatik mendira jo du bere anai Ikerrekin batera. Euskal Herriko muinoak igo zituzten bi anaiek hasieran eta ostetik, munduko txoko ugari bisitatu dituzte, batez ere, euren zaletasuna den eskalada praktikatzeko. Besteak beste, Himalaian, Alpeetan, Kanadan eta Ameriketako Estatu Batuetan egon dira; azken honetan Yosemiteko parke naturalean eskalatu dute.

ALOE VERA

Osasun-erregistroa duten produktu naturalak


- Erregina-jelea aloe verarekin
- Aurpegi eta gorputzeko hidratatzaileak
- Antiinflamatorioak: "Harpagofito", "Aloe vera" eta "Arnika"
- Barruko eta kanpoko erabilerako aloe vera

Etxera eramaten dugu

Helbideak:

Rosa M^a Palacios
Gorliz • Bizkaia
Tel.: 946 773 525
616 110212

Sagrario Ziordia
Santutxu • Bilbo
Tel.: 944 332 964



Mediterraneoan zeharreko itsas-bidaia zoragarria irabazi nahi?

Egin zaitez *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun, eta Mediterraneoan zeharreko bi lagunendako itsas-bidaiaren zozketan parte hartu ahal izango duzu.

Ez galdu aukera. Harpidetu zaitez!

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Laguntzailea:

VIAJES  IBERIA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



**ALTO DEBA
MARGOAK**

DEKORAZIO PINTURA
PINTURA INDUSTRIALA
FATXADAK

Tel.eta Faxe: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25




**J.SANCHEZ
ITURGINTZA**

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10
ARETXABALETAK
Tel.eta faxe: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

Dintura eta dekorazioa



San Migel 13, behea C
ARETXABALETAK
609 143 119



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano


Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETAK



Margogintza
Dekorativo eta Industrial

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxe: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturalak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxe: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza •
Gasa •
Berogailuak •
Peetrolio-produktuak •
limatizazioa •

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETAK
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETAK - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK




Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxe: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C./POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGIAK



Araba ibilbidea, 17 eta 25
•Tel: 943 79 28 41 •Fax: 943 79 79 06
•20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
•E-mail: kurtzebarri@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETAK
Telefonia eta faxe:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETAK
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETAK

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALETAK 943 793 187